

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

### **Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunak elikagaien, arroparen edo norberaren zaintzarako gaien ekoizpenean giza eskubideak eta ingurumena babestea aldarrikatzen du**

→ Donostia Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunarekin bat egiten du jardueraprograma batekin.

→ Ospakizun honekin gogorarazten dute arropa, kafea edo norberaren zaintzarako produktuek gehiegizko lan-baldintzak, haurren esplotazioa eta basoen suntsiketa ezkututzen dituztela.

"On egiten dio mundu guztiari" goi burupean, Donostia Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunarekin bat egingo du maiatzaren 11ean, Donostiako Bidezko Merkataritzako taldearen (Adsis Fundazioa, Emaús Fundazioa, Proclade, Intermón Oxfam, Proyde-Proega, Setem eta Alboan) eta Donostiako Udalaren lankidetzarekin antolatu duen jarduera-programa batekin.

Jardunaldi honekin, Bidezko Merkataritzako erakundeek gehiegizko lan-baldintzez, prezio ñimiñoenez, haurren ustiapenez edo eguneroko produktuen (arropa, kafea edo norberaren zaintzarako gaiak) atzean ezkututzen diren lurraren narriaduraz ohartarazten dute. Horren aurrean, kontsumitzaileei gogorarazi diete Bidezko Merkataritzako produktuek giza eskubideak bermatzen dituztela eta ingurumena errespetatzen dutela.

Aniztasuneko zinegotzi Cristina Lagék adierazi duenez, "guk, kontsumitzaile garen aldetik, ekoizpen-kate horien atzean dagoen giza esplotazioaz eta lan-esplotazioaz jabetu behar dugu, soldata txikiekin, lanaldi amaigabeekin, haurren eskulanaren erabilerarekin, kostuen azpiko prezioekin eta, horri kontrajarrita, ekoizpen-katearen beste aldean etekin itzelekin, lehen munduko herrialdeetan. "

Bestalde, Europako hauteskondeak gertu daudenez, Bidezko Merkataritzako erakundeek anbizio handiko zuzentarau bat aldarrikatzen diete Europako Parlamenturako hautagai diren alderdiei, enpresek beren ekoizpena egiten den munduko edozein lekutan dituzten eragin negatiboen erantzukizuna izan dezaten.

Donostian, Gipuzkoa plazan egingo da, eta bertan Bidezko Merkataritzako produktuak erosi ahal izango dira, hala nola elikadura, arropa eta kosmetika. Produktuak dastatzeko postu bat ere izango da eta txotxongilo lantegi bat egingo da. Gainera,

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

clown batek goiza girotuko du, jendea Bidezko Merkataritzaren inguruan sentsibilizatuz.

Berrikuntza gisa, aurten “zentzumenen gunea” izango da. Gune horretan, egunerokotasuna bidaia sentsorial bihurtuko da, Bidezko Merkataritzako lau altxorren zaporeak, lurrinak eta testurak bateratuz, eta ilustratzaile batek horma-irudi sortaile batean jasoko du jardunaldia.

Bidezko Merkataritzako erakundeek **#LeSientaBienATodoElMundo** sare sozialen kanpaina parte hartzera eta kanpaina hori hedatzera animatzen dute, baita alternatiba horri buruz gehiago ezagutzera ere, [www.lesientabienatodoelmundo.org](http://www.lesientabienatodoelmundo.org) webgune interaktiboaren bidez.

Pobrezia, gehiegizko lan-baldintzak, kostuetatik oso beherako prezioak, soldata txikiak, haurren esplotazioa edo baso-soiltzea dira eguneroko produktuen atzean ezkutatzen diren arazoetako batzuk, hala nola kafea, arropa edo norberaren zaintzarako gaiak. Horiek guztiek bat egiten dute etekinak katean zehar banatzean dagoen desberdintasunarekin: lehengaien laborantza batez ere Latinoamerika, Asia edo Afrikako herrialdeetan egiten da, eta balio erantsi eta milioi askoko diru-sarrera gehienak Ipar globalean geratzen dira, enpresa multinazional gutxi batzuen artean banatuta.

Ehungintzak, petrolioaren atzetik bigarren kutsatzaileena izateaz gain, pobrezia ere sendotu du: eskulanaren % 75 Asiako herrialdeetan dago. Gaur egun, eta sektoreko enpresek borondatezko konpromisoak hartu dituzten arren, lan-baldintzak gogorrak dira oraindik: egunean 12 eta 16 ordu arteko lanaldiak, astean sei edo zazpi egun, segurtasun- eta osasunbaldintzarik eza, eta bizitzeko beharko luketenaren laurdena edo bostena osatzen duten soldatak.

Kosmetika naturala hazten ari den sektorea da. Egungo balioa 48.400 milioi dolarrekoa da. Hainbat azterlanen arabera, datozen 10 urteetan urtean % 5eko igoera izango da. Karitea bere lehengaietako bat da. Urtero 40.000 eta 75.000 tona artean esportatzen dira produktu horretatik Afrikatik Europara, FAOren arabera, Saharaz hegoaldeko 16 milioi emakumek bildu eta prozesatuta. Soldata egunean 1,25 dolarretik beherakoa da.

Horren aurrean, Bidezko Merkataritzako produktuek lan-eskubideak eta giza eskubideak, soldatak eta baldintza duinak errespetatzen dituztela bermatzen dute, haurren esplotazioa debekatzen dute, genero-berdintasunaren aldeko apustua egiten dute eta lurra eta ingurune naturala errespetatzen dituzten teknikekin ekoizten dira. Kafea, kakaoa, azukrea, tea edo arropa dira 60ko hamarkadan sortu zen eta gaur egun 70 herrialdeetan baino gehiagotan dago.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Ekitaldien agenda osoa [www.comerciojustodonostia.org](http://www.comerciojustodonostia.org) webgunean kontsulta daiteke.

**Más información:**

Yoanna Amondarain – 664 294 996 – [yoanna.amondarain@fundacionadsis.org](mailto:yoanna.amondarain@fundacionadsis.org)

Aizpea Arregi - 615 729 851 - [a.arregi@emaus.com](mailto:a.arregi@emaus.com)

